



(m) 2002

xagubelarri@hotmail.com

sei urtetik gorako pertsona guztiek har dezakete parte, eta genero guztietako lanak onartzen dituzte. Hala, bertsopaperak, olerkiak, ipuinak, saiakerak... aurkeztu ahal dira. Lanen luzera ez da mugatuko, eta parte-hartzaile bakoitzak lan bat baino gehiago aurkeztu ditzake. Lanak aurkezteko epea 2003. urteko martxoaren 29an bukatuko da. Xehetasun gehiago: 948-634125 edo bortziariak@euskalnet.net.

Bekak

Kafe-antzerkia/ Bortziariak. Bortziarietako Euskara Mankomunitateak, Berako Udalak eta Etxalarko Udalak kafe-antzerki bekarako deialdia egin dute. Euskaraz sortutako proiektuak lagunduko dituzte, eta, ildo horretatik, euskal sortzaileei bultzada ematea eta herrietan formatu txikiko lanak taularatzea izango du xede egitasmoak. Bi beka izanen dira; biak 900 eurokoak. Curriculumaren eta proiektuaren ezaugarri nagusiak bilduko dituen txostena aurkeztu behar dira. Horiek aurkezteko epea urtarrilaren 31n amaituko da. Eskerak helbide honetara bidali beharko dituzue:

Bortziarietako Euskara Mankomunitatea, Herriko plaza 7, 31.790 Arantzeta, Nafarroa. Argibide gehiago 948 634125 telefonoan, 948 634192 faxean eta bortziariak@euskalnet.net helbide elektronikoan.

Ikastaroak

Hainbat/Zarautz. Zarauzko gaztelekuak hainbat ikastaro antolatu ditu urteko lehenengo hiru hilabeteetarako. Grafiti ikastaroa, perkusio ikastaroa eta sendabelar ikastaroa antolatu dituzte. Izen ematea eta informazio eskaria gaztelekuan bertan egin daitezke.

Hainbat/Azpeitia. Zapo Txoko gaztelekuak hainbat ikastaro antolatu ditu. Gitarra elektrikoak jotzen ikasteko ikastaroa, adibidez; 17 orduko iraupena izango du horrek, eta eskolak ostegunetan izango dira. Halaber, sukaldaritza eta dantza garaikideko ikastaroak antolatu dituzte. Haiei buruzko informazio zehatzagoa Azpeitiko Gazte Informazio Bulegoan eskura daiteke: 943-15.71.61.

Hainbat/Atarrabia. Atarrabian hainbat ikastaro emango dituzte urtarritetik ekainera bitartean. Urtarrila-

ren 20an hasiko dira. Afrikan dantzen ikastaroa, esate baterako, asteartetan emango dute (19:30etik 21:30era); sabel dantzarako bi talde antolatu dituzte (hastapenekoak, astelehenetan 20:00etatik 22:00etara, eta jarraipenekoak, asteazkenetan 19:30etik 21:30era); masaje saioak ostegunetan egingo dituzte (19:30etik 21:00etara) eta astrologiakoak asteazkenetan (19:30etik 21:30era). Ikastaroetan izena emateko epea urtarrilaren 12an amaituko da, eta Atarrabiako gaztelekura jo behar da horretarako. Telefonoa: 948-355987.

Erakusketak

Pintura/Erreteria. Erreteria eta inguruetako zortzi gaztek pintura erakusketa ipini dute Mikelazulo elkartean. Halaber, erakusketan hitza eta komunikazioa lantzeko aukera eskaintzen zaio ikusleari, eta koadroen inguruan idazkiak egiteko aukera eskaintzen dute. Hilaren amaiera arte izango da zabalik.

'Paisaia horizontalak'/ Tolosa. Txokolarie kolektiboak, *Paisaia horizontalak* izeneko proiektuarekin aurrera jarraitzen du. Hala, makina zapaltzaile batekin, lurreko irudiak jasotzen ditu, eta, gero, erakusketa batean ipintzen. Oraingo honetan, Tolosan egin dute lana. Erakusketa Aranburu jauregoan dago ikusgai, ostailaren 22ra arte.

'Incidencia'/ Bilbo. Idoia Ibartzuzak bere artelanak Sarea kulturegunean ditu ikusgai, otsailaren 6ra arte.

Antzerkia

XXX/ Barakaldo. Kataluiniako La Fura dels Baus taldea Euskal Herrian, Barakaldon, izango da egunotan, XXX izeneko bere azken ikuskizunarekin. Bihar, 20:30ean egingo dute saioa; larunbatean, 19:00etan eta 23:00etan; eta igandean, 19:30ean.

'Kontenedore baten istorioak'/ Gernika.* Maskartada taldeak kontenedore baten gertatutakoak azaltzen ditu bere azken lanean. Bihar, 20:30ean, Gernikako Lizeo antzokian izango dira.

'Biblia oso gutxi gorabehera'/ Legazpia. Kanpingags taldeak asteburu honetan Legazpira eramango dute bere antzezlan berria. Patxi Barko, Asier Hormaza eta Joseba Apaolaza

aktore direla, bihar, 22:30ean, eskainiko dute saioa, Latxartegi aretoan.

'Hau paraderoa!'/ Zarautz. Lau emakume, bost leku eta bost egoera. Hori da *Hau Paraderoa!*, Eli Elizondok, Aitzpea Goenagak, Loli Astorekak eta Elena Iruretak antzeztzen duten antzezlan. Igandean, 19:30ean, Lizardi aretoan eskainiko dute beren emanaldia.

Dantza

'Hahmomania/No time for Wasa'/ Bilbo. Larunbatean eta igandean, ohi bezala, La Fundicion aretoan dantza garaikideko emanaldiak ikusteko aukera izango da. Kasu honetan, La Trava taldeak *Hahmomania/No time for Wasa* ikuskizuna aurkeztuko du. Bi emanaldiak 20:30ean izango dira.

'Intxaur karraskaria'/ Andoain. Datorren asteartean, Errusiako Bolshoi antzokiko balet ezaguna Andoainean izango da. Bersaien emanaldian, obra klasiko zein ezagun bat antzeztuko dute: *Intxaur karraskaria*. Ikuskaria 19:00etan abiatuko da.

Bestelakoak

'Sarri gure artean'/ Audio. Bihar, 22:00etatik aurrera, testu irakurketa egingo dute, Audioko gaztetxean. Larrabetzutik, bbk (bihotz bakartien kluba) taldea helduko da, eta Joseba Sarriiondiaren testuak irakurriko dituzte.

Mus txapelketa/ Behobia. Union Basque elkarteak antolatu ohi duen mus txapelketa hastear dago. Izen emateak urtarrilaren 31 baino lehen egin behar dira Xaia ostatuan ala 05.59.20.7610 telefonoan.

Kabareta/ Bergara. Igandean, Bergarako gaztetxea kabaret bihurtuko da. Izan ere, emanaldia eskainiko du, bertan, Kasketa Kabareta. Saioa 19:30ean hasiko da.

Zinema

'Behin bazen mendebaldeak'/ Donostia. Nosferatu zinema zikloa Europako westernari eskaintzen ari zaion egitarauaren azken emanaldia izango da, datorren asteazkenean. *C'era una volta il west* (Sergio Leone, 1968) filma euskaraz emango dute, 20:15ean, Antzoki Zaharrean.

Deialdiak

AHT-ren aurka/ Tolosa. Otsailaren

1ean, AHTren aurkako manifestazio handia egin nahi dute, Tolosan. AHT gelditu beharra aldarrikatzeko, bere justifikazio faltagatik eta eragingo dituen kalte ekologikoengatik Euskal Herri osoari egiten dio dei AHT Gelditu taldeak. Bilkura otsailaren 1ean izango da, 18:00etan, Triangelu plazan.

argitalpena



'Gaztetxulo'-k ere Nunca Mais

Urteko lehenengo *Gaztetxulo*-k begirada zuzena egin dio *Prestige* itsasontziaren gatazkari eta hark eragindako marea beltzari. Ezbehar handi horrek Euskal Herrian izan dezakeen eraginaz mintzatzen da, lekukotasun eta argazki ugarirekin osatutako erreportajea. Halaber, unibertsitateko kafetegiak ere hizpide ditu urtarileko aleak. *Kafetegiko fauna* deitu diote idazlanari, eta bertan kontatzen dira ikasleek eskola orduetan izaten dituzten jardun nagusiak: karta jokoa, pintxo jana, hizketaldi luzeak... Elkarriketaren atalean, berriz, Idoia Blancori egin diote galdeketa nagusia. Idoia Hala Bedi irratiko kidea da, eta, hain zuzen ere, Gasteizko irratir libreak abuztuan 20. urtemuga beteko du; irratia ibilbideari eta etorkizunari buruz jardun dira. Bestalde, ohiko atalei dagokionez, musikako orrialdeetan Asgarth eta Zea Mays taldeen azken lanak aurkeztu dituzte; sexuan, larrua jotzeko moduen azalpena egin dute; horoskopoak 2003. urteko aurrerapena egiten du; eta *Hontzaren Ulua* Mungiako gau giroaraino iritsi da. Internet, zinema, telebista, diskoen kritikak, bitxikeriak eta abar ere ez dira falta.

LIBURU GOMENDIOA



Nerea Elustondoren

Bertsolaria

Gu guztiok izan gaitezkeen ezezagun batek gutun estrainio eta anonimo bat jasotzen duenean hasten da istorioa. Aipatu gutunak, beste sei gutun ekarriko ditu atzetik hartzailearen harridura eta jakin-mina areagotuz. Pertsonen psikologia, aurrerapenen atzerapena, heriotzarekiko ikuspegia... gai ugari ukitzen ditu Juan Luis Zabala bere eleberrian. Oro har, erraz irakurtzen den liburua dela esango nuke.

Ah! Nire moduan beti erretzeari uzteko dabilena bazara, irakurri liburua. Ziurrenik, ez diozu erretzeari utziko, baina zin dagit, liburua irakurtzen ari zarela pizten duzun zigarro bakoitzak errudun sentiaraziko zaituela.

«Zigarrokin ziztrin baten azken keak»

Juan Luis Zabala

Boladaka: horrela funtzionatzen dugu zenbaitek bizitza honetan, eta horrelakoa da nire irakurtzeko joera ere. Behin baino gehiagotan gertatu izan zait, hilabete bakar batean hiruzpalau liburu irentsi eta gero, hurrengo liburua hasi eta hautsak erabat jaten duen arte berriz ez ukitzea. Hori dela eta, aspaldi xamar irakurri nuen eleberri bat dakarkit lerrootara.